

DEFINIZIOA Egoera zail nahiz gatazkatsua arrakastaz konpontzeko baliabideak eta BIZKORTASUNA.

EGOERA PRAKTIKOAK

Enplegua
bilatzea
norberaren kabuz
besteren kontura



AINTZANEK telefono enpresa batek jendea behar duela jakin izan du. Deitu eta elkarriketatzeko hitzordua eskatu du. Autorik duen galdetu diote, bezeroak dauden lekuetara eta denbora hobeto aprobetxatzeko lan tresnatzat baitaukate. Aitzanek gidatzeko txartela duela erantzun du, eta autorik ez duen arren, lor dezakeela.

Handik egun batzuetara, Aitzanek lanpostua eskaintzeko deia jaso du. Pozik onartu du, baina arazo bat konpondu behar dut: autoa. Gurasoen autoa da aukerarik egokiena, baina ezinezkoa da, amak egunero baitarabil. Aitonarena oso auto txikia da, eta ez da aukerarik erosoena, joan-etorrietan denbora asko eman beharko lukeelako. Azkenean, lehenengo 15 egunetan autoa lagun bati eskatzea erabaki du. Aldi berean, bigarren eskuko auto bila hasi da. Gurasoei mailegua beren izenean eskatzeko eta lehenengo hileko ordainketa, ondoren itzuliko diena, aurreratzeko eskatu die. Gurasoek onartu egin diote, eta lagunak autoa utzi dio, bi asterako. Hori du autoa erosteko denbora.


Enplegua



MIKELe lanean egun txarra du. 25 scanner egin behar izan dituzte, eta makinak huts egin du. Pertsona batzuk zain dauzka, eta hurrengo hiru hilabeteetan dena dago beterik. ez dago ezer libre. Burua ez dago. Zerbitzu teknikoari hots egin dio. Ezingo dute ordubete baino lehenago iritsi, eta makina ikusi arte ez dute jakingo zenbat denbora beharko duten konpontzeko. Hartutako erabakiak:

- Zain dauzkane! gertatukoa azaldu, eta bi ordu barru itzultzeko eskatu die.
- Azkeneko orduan zita dutenei ez etortzeko abisua eman die, ahal bezain laster beste zita bat emango diela adieraziz.
- Burua aurkitzen ahalegindu da, zita izan duten gaixoak lan karga gutxiago duten ospitaletara bideratzeko prozedura martxan jartzeko baimena eskatzeko.

Beste
alor batzuk



MARCOS eta MAITEk Adineko egitarauari esker opor-egun batzuk igaroko dituzte Portugalen. Marcos bi egun lehenago konturatu da iraungita duela nortasun agiria. Maitei adierazi dio, abioira igotzerik izango al duen galdetuz. Maitek aire-lineetara hots egin du zer dokumentazio eraman dezakeen galdetzeko. Jasotako informazioarekin Polizia Nazionalari deitu dio, egoera kontatu eta behar duen agiria hitzordurik gabe hara hurbildu eta ea berehala egin diezaioketen galdetu die. Elkarriketaren ondoren, Marcosi esan dio poliziaren bulegoetara joateko prestatu behar duela.

GOGOAN
IZAN

- ▶ EZ EGON BESO GURUTZATURIK, arazoak berez edo denboraren poderioz konponduko direlakoan.
- ▶ Egin aurre, eta hausnartu NOLA KONPONDU: soluziobidea aurkituko diezu, seguru.
- ▶ EZ UTZI besteren ESKUETAN zuri dagozkizun arazoaren konponketa.



Fondo Social Europeo
Europako Giza Fonda

inguralde

BARAKALDOKO UDAL GORENA Euzko Lehenengo
Organismo Autonomo ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO